

www.noaia.com

# Noaia!!!



Abenduaren 22an,  
"Bertsolari" pelikula Sutegin



Igande honetan,  
Santo Tomas azoka

# FRANTSES KLASEAK

Hou la la!

ANIMA ZAITEZ!!!

- Frantzia oso gertu dagoelako
- Profesionalki garrantzitsua
- Frantses pixkat bazenekien baino ahaztu bazaizu eta berreskuratu nahi baduzu...
- Jubilatuentzat ere klaseak

**AUKERA EDERRA DAUKAZU! URTARRILAREN 9an HASIKO GARA**

Asteazken zehar ordutegi ezberdinak aukeran goizez edo arratsaldez

eta **aukera BERRIA!!!!**

ezin badezu klasera etorri... eta zure maila ZERO edo GUTXI bada

**INTEKNET** bidez ikasi, (hilean behin aurkeztuta)

**609 75 47 99 Usurbil**

**URDAIRA**

**Sagardotegia**  
Sagardo naturala

Abenduak 17 **BARRIKOTEA**  
**20.00h Urdairan**

astelehenak itxita

Aginaga  
943 37 26 91

**Otar-Goxo**  
Elkagaiak

Hirukide elkarteko kide diren familientzat... **%5 EROSKETA GUZTIETAN!**

merkalitatea

hurbilag

## Gabonetako berezitasunak eta otarrak prezio ezin hobean

<p><i>Harategiko berezitasunak</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Txahal azpizuna</li> <li>Behi azpizuna</li> <li>Esneko arkumea</li> <li>Txerrikumea</li> <li>Antxumea</li> <li>Kapoa</li> <li>Pularda, ehiza,</li> <li>Rosbeef, entrekota (1kg)...</li> </ul>	<p><i>Urdaitegiko berezitasunak</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Foie frexkoa</li> <li>Ahate konfita,</li> <li>Mikuit</li> <li>Txatka naturala</li> <li>Izozkina</li> <li>Frijitu bereziak</li> <li>Budinak</li> <li>Iberiko aukera zabala</li> </ul>	<p><i>Fruta denda berezitasunak</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Ananak</li> <li>Gaztainak</li> <li>Mahatsa</li> <li>Orejoiak</li> <li>Kiwiak</li> <li>Bertako barazkiak</li> <li>Fruten selekzio paregabeari</li> </ul>
---	---	--

**harategia · urdaitegia · frutak · barazkiak · kontserbak · berezitasunak**

Zubiaurrenea, nº2 • ☎ 943 36 55 81 • 20170 Usurbil

Albistea iruditan!

## Jostailu erabiliak trukatzeko aukera

**N**irea zuretzat, zurea niretzat... Aizu tori eta ekarri hori!" lemapean bosgarrenez antolatua du Hitz Aho Udarregi Ikastolako Guraso Elkarteak, Jostailu Erabilien Azoka. Abenduaren 17an frontoian ospatuko da, gaion berrerabilpena bultzatzea helburu duen ekimena. Eguberrien atarian, goizeko 11:30ean hasi eta 13:00ak arte, aisialdirako baliatu ohi diren produktuak elkar trukatzeko aukera izango dute herritarrek.

Edizio honek badakar berrikuntzarik gainera. Antolakuntzatik adierazi dutenez, Gaztelekukoek azoka eguna dinamizatuko dute. Ekimenean parte hartu nahi duenak, azokarako gaiak lehenago, abenduaren 14tik 16ra Sutegiko erakusketa aretoan utzi beharko ditu. Ordutegi



LARUNBAT HONETAN, GOIZEKO 11:30EAN HASIKO DA AZOKA.

honetan; arratsalde, 17:00-19:00 artean. Hitz Ahok ohartarazi ohi duen moduan, gogoan izan. Jostailuek osorik egon eta CD edo DVD eta antzekoak jatorrizkoak

izan beharko dute. Bilketa egunetan jasotzen dena musutruk emango da. Trukean, zortzi urtetik beherako haurrek ardurdun batekin parte hartu beharko dute.

## Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	DYA	943 464 622
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Gurutze Gorria	943 272 222
Udaltzaingoa	943 361 112	Etumeta AEK Euskaltegia	943 372 001	Emergentziak	112
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Gure Elkarte Zahar Egoitza	943 371 751	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Bake Epaitegia	943 372 336	Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Udarregi Ikastola	943 361 216	Taxia (Angel)	607 928 770	Banco Popular Español	943 370 411
Haur Eskola	943 374 061	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466	BBVA	943 377 155
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Eusko Tren	943 470 976	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Hastapen tailerrak	943 360 465	Anbulategia	943 362 013	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
KZgunea	943 570 999	Oa botika	943 376 076	Telefonica	1004
Oiardo Kirolegia	943 372 498	Iturralde botika	943 363 395	Euskaltel	900 840 840

**Noaua!**

NOAUA! Kultur Elkarte BORDABERRI 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Aizpea Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, publicitatea@noaua.com.

Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Aizpea Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola, Ainara Arnaiz.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbietta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Maddi Zaldua, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Maider Makazaga, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



ARITZ GORRITI

## Urte erabakigarria

Sei hilabeteko tartea ireki da, 180 bat egun pasatxo. Eta tarte hau igarotzean, urte luzeetan zeresana eman, eta herritarren kezka iturri izan den errauste plantaren inguruko erabakiren baten berri izan dezakegu. Zein ote erantzuna? Negu gorrian hasiko dugun urte berria, berotik joango dela aurreikusi daiteke, bai behintzat, hondakinen kudeaketaren gaiari dagokionean.

Sei hilabeteko tartea dute baita Euskal Herriko kirolariek, datorren urtean Londresen jokatu diren olinpiar jokoak prestatzeko. Mundu mailako hitzordu garrantzitsuenetarikorekin batera ordea gure mugen barruan, Euskal Herria hedabideetako titular batean baino gehiagotan aurkitu ahal izango da 2012an. Azken urte eta batez ere, hilabeteotako albisteen haritik, zein izango da 2012an gatazka politikoak hartuko duen norabidea? Zeintzuk hurrengo pausoak? PP gehiengo osoz agintean, begi bat krisialdian eta bestea, ziur, Euskal Herrian jarrita izango ditu. Konponbiderako borondaterik izango ote du ordea? Hasteko,

presok bizi duten egoerarekin. Tentuz aztertu beharko da, esaten dutena baino, esaten ez duten hori. Eta noski, egingo dutena. Politikarien hizkuntza denbora gutxian, nola aldatzen doan ikusi besterik ez dago.

Lerro artekoa irakurtzeko garai ederra da hau. Keinuei begiratu, isiltasunak neurtzen hastekoa. Eta hemerrotekara begiratzekoa baita. Ikusi eta irakurri, hilabeteotan nola aldatu diren ordezkari politiko askoren diskurtsoak, eta konturatzerako, gizarteak nola barneratu dituen aldaketa hauek.

2012an halako gehiago gertatuko dira. Krisialdi ekonomikoak kezka iturri nagusi izaten jarraituko duen urtea hastera doa. Itxura guztien arabera, urte erabakigarria gai askotan. Kronometroak martxan dira. Ia zer ekartzen duen mundu amaiera ere iragarria dagoen urte berriak. 2011 ahalik eta ondoen amaitu dezagula, eta hobeto hasi ahal bada datorrena. 2012 on guztio!

Imanol Ubeda - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregerai

### Ika-mika !

## Eskola publiko bat Usurbilen

Aukera taldekook pasa den azaroaren 8an, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailekoekin egon ginen, Gasteizen, Marisol Esteban Sailburu ordearekin, Teresa Segura Errekurtsoen arduradunarekin eta Julen Bengoetxea Gipuzkoako hezkuntzako ordezkariarekin.

Bileran, zergatik eskatzen dugun eskola publikoa Usurbilerako, azaldu genien. Usurbilgo egoeraz ezagutza handia zutela konturatu ginen. Usurbil eta inguruko hezkuntza errealitatea, bai matrikula kopuruz, jaitza tasaz, etab... presente duten egoera bat dela konturatu ginen.

Usurbilgo egoera, gure ikuspuntutik, azaldu eta gero, Marisol Estebanek argi esan zigun, guk, udalarekin hitzezko konpromezua eduki arren, beraiek ez dutela denboraldi baterako eraikuntzarik bultzatuko. Ez dute uste Usurbilen behar larriarik dagoenik, hezkuntzaren ikuspegitik. Ezta ere, denboraldi baterako eraikuntza batean hastea irtenbide

egokia denik. Erkidego osoan, 2.500 ikasle baino gehiago dauzkate horrelako eraikuntzetan, eta ez dituzte gehiago nahi. Bideratzear dauden lekuetan, eraikuntza kontsolidatuarekin hasi nahi dute, etorkizuneko eta berme osoko leku batean ikusi nahi dituzte eskola publikoko ikasleak. Horregatik, epe ertain batean, Usurbil izango da eskola publiko berri bat edukiko duen herrietako bat. Beraien planifikazioan, inguruko herriak, demografia eta matrikulazioak kontutan harturik, eskola publiko baten beharra aurreikusten dute. Eta Usurbilgo egoera kontuan hartuz, Usurbil hartu dute lehen aukeratzat eskualdean eskola publikoa kokatzeko.

Gure ustez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailean, Usurbil presente dagoen herri bat da. Beraien planifikazioetan kontutan hartzen duten errealitatea da. Guretzat, gaia, premiazkoagoa dela azaltzen saiatu ginen, baina egungo abagune ekonomikoak ez duela lehentasunez hartzen uzten esan ziguten.

Argi eta garbi utzi ziguten, udalaren inplikazio zehatza eta azkarra behar dela, eraikigarria den lur sail bat izendatzeko eta Eusko Jaurlaritzari eskualdatzeko, eskola publikoa abiarazteko. Ezinezkoa da, Eusko Jaurlaritzak ezer egiten hastea, ez badu Udalak izendatzen lur sail bat eskola publikorako.

Horregatik "AUKERA" taldekook eskaera bat sartu dugu udal erregistroan, eskola publikorako lur sail bat izendatzeko eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailburuari Usurbilgo eskola publikoa martxan jartzeko tramitazioa hasteko eska diezaion.

Bestalde, Batzar ireki bat egin genuen azaroaren 30ean Artzabalen, eskola publikoa Usurbilen azken berriak eta egungo egoera azalduz. Norbaitek nahiko balu, informazioa epusurbil@gmail.com e-mailera eskatu besterik ez du eta ahal dugun bezain laster erantzun diogu.

Aukera Eskola Publikoa Usurbilen



**Kima**  
MASAJE LEKUA  
· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA  
· KOLONAREN HIDROTERAPIA  
Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97



**LAUKOTE**  
okindegia  
kafeteria  
Puntapax 16, behea 943 360 980

**Gure bezeroen artean saski baten zozketa ABENDUAREN 22AN**

## Zerbitzu publikoak euskaraz izatea bermatzen jarraituko du Udalak

**A** benduaren 3an ospatu zen Euskararen Nazioarteko Egunaren bezperatan, egun horri begirako mozioa onartu zuen udalbatzak. Lau puntuko testuan adierazten denez, Usurbilgo Udalak "bere esku dagoen guztia egingo du", udal langileen euskalduntzea bultzatu eta bermatzeko; langileen lehen hitza beti euskaraz izan dadin; udal barruko funtzionamendua ere hizkuntza berean gauzatu dadin; edota hizkuntz eskubide indibidual zein kolektiboak bermatze aldera, Usurbilen euskaraz bizitzea helburu duen plangintza integrala garatzeko.

Bildu, Aralar, Hamaikabat eta EAJ-PNV-k mozioaren alde bozkatu zuten. PSE-EEko udal ordezkaria ordea, abstenitu zen. Usurbilgo Udala euskara bultzatu eta bermatzearen alde egon arren, mozioan aipatzen den esaldi batekiko



USURBILEN ERE, EUSKARAREN EGUNA OSPATU ZEN ABENDUAREN 3AN.

desadostasuna agertu zuen Ricardo Crespok, "Espainiak eta Frantziak ordea, gaztelania eta frantsesa inposatzen dituzte Euskararen Herrian eta trabak jartzen, euskaraz bizitzeko" zioen esaldiarekiko hain zuzen.

Horri lotuta, mozioak "Euskal Herriaren ireki den aro berri honetan, hizkuntz gatazka konpontzea, lehentasunezkoa" dela dio. Gai honetan ere, testuak gogorarazten duenez, "Euskal Herriak du hitza eta erabakia".

## Aldaketak udal lanpostuen zerrendan

**K**irok Patronatuko zuzendaritza kbatzordeak kide berri bat izango du aurrerantzean; Iñigo Pagola Uranga. Usurbilgo kirol elkarteak ordezkatu ditu. Azaroko ohiko udalbatzaren bilkuran, aho batez onartu zen Iñigo Pagola Oiardoko Patronatuko zuzendaritzako kide berriaren izendapena.

Pagola hain zuzen, herriko kirol elkar-teek, eurak ordezkatzeko urriaren 27an buruturiko bileran proposatu zuten hautagaia da. Azken osoko bilkuran bestalde, 2011ko udal Lanpostuen

Zerrendan aldaketa berri bat txertatzea hasieraz onartu zuen udalbatzak. Mertxe Aizpurua alkateak berri ematen zuenez, "lanpostuen zerrenda ekainean argitaratu zen. Orduetik langileen helegiteak izan dira eta langile batek mailaz aldatu du". Ondorioz, Lanpostuen Zerrenda berriz eguneratu beharra dagoela gogorarazi zuen. Bozketarako tartea hartu zuten segidan. Bilduk babestu zuen proposamena, Aralar, PSE-EE eta EAJ-PNVko ordezkariak abstenitu ziren. Hamaikabat aurka agertu zen.

### Izen ematea irekita II. Hurbilago San Silvestre herri lasterketan

**A**puntatzeko bi modu daude; Hurbilago elkarteko establezimenduetan doan eman liteke izena, baita noaia.com web orrialdean dagoen loturan klikatuta. Herri lasterketa, urtezahar egunez ospatuko da. 17:00etan abiatuko da Mikel Laboa plazatik. Lau kilometro inguruko ibilbidea osatu beharko dute parte hartzeko asmoa dutenek.

### Bakarriketa saioak Zubietan

**H**iru bakarriketa saio ikusteko aukera egongo da ostiral honetan, hilaren 16an Zubietan. Zubieta Lantzenek hiru antzezle gonbidatu ditu Kaxkapera; Ion Martinez, Barry "Barrez" eta eurekin batera, herritar bat; Garbiñe Astiazaran. Emanaldia gaueko 22:00etan hasiko da. Sarrera doan.

### Gabon eskerako entsegua

Abenduaren 24rako herriko talde desberdinek gabon eskean irteteko hitzorduak antolatu dituzte Aginagan, Kaxkoan, Santuenean, baita Zubietan ere. Abenduaren 24an Artzabaletatik abiatuko den ekimenerako entsegu saioak deitu ditu Zubieta Lantzenek, ostiral honetarako, abenduaren 16 eta 23rako. Iluntzeko 19:00etan Kaxkapen.

**JE JON ELORZA**  
IGELTSEKITA  
OROKORRA  
Obrak eta erreformak  
**661 804 688**  
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

**ALKORTA**  
**AUTOZERBITZUA**  
**Baserriko haragia**  
•Frutak •Barazkiak •Etxeko produktuak •Izoituak  
Behoko kalea 4, ATXEGALDE AUZOA 943 36 57 42

## SANTUENEA

PAKO AGUDO

## Olentzerori gutuna



**O**lentzero maitea: Laster etorriko zara berriro ere gure auzo aldera eta eskuzabalik egongo gara, banatzen duzun alaitasuna eta opariak ere noski, jasotzeko asmoz. Badakit urte osoan zehar zaudela guri begira eta gure kantu eta irribarre handienarekin egingo dizugu harrera beroa, aurten ere.

Agian zu izan zinen orain dela gutxi gure auzoak ito zituzten ur jasa horiek itsaso aldera eraman zituena, baina kalte ugari uzi zituzten hala ere. Espero dut dagoeneko kaltetu guztiek zure laguntza jaso izana.

Badakit aspaldi ez dizudala idatzi, baina orain arte eka-rritakoarekin konformatu banaiz ere, aurten eskaera berezi bat daukat zuretzako.

Bide pusketa bat. Hamabi metro inguru hormigoizko bide pusketa bat.

Bai, egiten ari naizena badakit eskaera berezi samarra dela baina ez da neuretzat bakarrik. Bide pusketa hori Puela bidean jarriko nuke berriro, Andatza eta gure auzoa batzeko asmoz. Ikusten? Ez da neuretzat bakarrik. Honela, mendizaleak, ehiztariak, txirrindulariak eta abar handi



batek jasoko zuen ere, bere bide pusketa opari gisa.

Mendian igarotzen duzu ia urte osoa, horregatik uste dut ulertuko duzula neure eskaera. Gabonetan ezin bazina menditik jaitsi, bidea moztuta dagoelako...

Ez naiz inor opari hori merezi dudana ala ez esaten hasteko, horretarako zu zaude, baina datorren abenduaren hogeitalauko gauean behintzat, niri ilusioa ez zait faltako.

Besterik gabe agurtzen da,  
Pako Agudo.

## KALEZAR

MADDI GALBETE

## Beti badugu zerbait!



**Z**ubi luzea pasa eta gero lanean hasteko ordua iritsi zaigu berriz ere. Eguberriak parez pare, datozen aste gogorreire aurre egiteko sendagai magikoa dira.

Baina eguberriak alde batera utzita, beste mila motibazio ere baditugu gure herrian, egunerokotasuna arinago egiten dutenak. Pasa berri den asteburu luze honetan, Durangoko azokan murgiltzeko aukera izan dugu besteak beste, eta datorren igandean, Gipuzkoako bertso finaleko egun handia ospatuko dugu. Baina Euskal Herriko ospakizunak alde batera utzita, kanpoko lagunak etxera ekartzen ditudan bakoitzean beti harritzen dira Usurbilgo ospakizun kopurua ikusten dutenean.

Beti esaten didate "herri honetan beti daukazue zerbait!". Egia esan ez zaie arrazoirik falta, eta nik harrotasun handiz esaten diet baietz, halaxe dela.

Gaurko kronika ekitaldi guzti horiek antolatzen dituztenei eskerrak emateko erabili nahi dut, beraiei esker eta ekitaldiotan parte hartzen dugunoi esker, herri hau bizibizi mantentzen dugulako. Herri guztiek ez dute Usurbilek adina zorterik... Jarrai dezagun horrela!

## URDAIAGA

NEREA AIZPURUA

## San Esteban Txiki



**K**onturatzeko berriz ere hemen dira; Gabonak iristear dira eta egun bereziak dira munduko leku ugarran. Txikientzat magia eta ilusioz beteriko egunak dira datozen hauek, baina denbora pasa ahala ilusio

hau galtzen joaten garela deritzot.

Ilusioa galdu ala ez eta duten kutsu komertzialetik kanpo, nik behintzat gustoko ditut oraindik Gabonak. Familia eta konpainian igarotzen diren une goxoak, gabon gaueko eta urte zahar eguneko poteoa lagun konpainian...Ezin ukatu hala ere, badutela halako nostalgia puntu bat, izan ere egun hauetan gure alboan ez daudenak edo guregandik urrun daudenak inoiz baino presentegoz izaten baititugu.

Eta nola ez! Gabonak gertu egoteaz gain, San Esteban Txiki eguna ere gainean dugula gogorarazi nahi dizuet. Gure auzoan aurten ere abenduaren 26an meza nagusiaz gain bertaratutakoek hamaiketako goxoa dastatzeko aukera izango dute, jai-batzordearen eskutik. Gaurkoz besterik ez, ondo igaro egun hauek eta urte berriari osasuna eta zorientasuna eskatu!...

## KALEBERRI

ANA URDANGARIN

## Urteko azken hila!!!



**A**bendua dugu urteko azken hila-betea eta gure herrian bestela ere ekitaldi gutxi ospatzen badira, hamabigarren hil honetan ez da festa girorik faltako.

Ekintzez blai etorri zaigu urteko azken egunak kolorez argitze asmoz, urteko azken txanpa hau. Igande honetan, abenduaren 18an, Santo Tomas eguna tartean dugula, NOAUA!-k antolaturiko azokan saltsa izango da aurtengoan ere.

Gabon kutsua hartzen du abenduak eta gehienentzat jan edanak topera egiteko ohiturak sinismenaren gainetik dagoela iruditzen zait batzuetan, baina jende sinisdun ugari izango da benetan, egun hauek kontsumismotik kanpo eta gaur egun ematen zaion kutsu horri kaso handirik egin gabe ospatzen dituenik.

Zaila baita gizarte honek eramaten gaituen zurrunbilo ikaragarri horretatik ihes egitea.

Halere, garrantzizkoena bakean eta poztasunean ospatzea da ate joka ditugun jai hauen alderdirik ederrena, giro ederrean denak elkarren ondoan konpartitzeko aukera hori izatea alegia.

## ATXEGALDE

MA JESUS URBIETA

## Ondo pasatzea helburu



**N**eguaeren atarian gaude dagoeneko, urtea joan zaigu di-dabatean, eta Santa Luziaren astean gaude murgilduta. Dena dela, ondo pasatzea helburu, jostunak direnak edo noizbait izan direnek ez dute ahaztuta egun horretako bazkaria edo afaria, emakume taldeak, umorez bildu eta urteroko ospakizuna izaten da, jatetxe desberdinetan, ohiturari jarraituz.

Gero Santo Tomas dugu oso gertu, azoka bikaina izaten da Donostia aldean, talo eta txistor gozoa izango dugu, nahi duenak dastatu ahal izateko. Gure auzoan Joakinen harategian ere nahikoa izaten da egun horretan. Dagoeneko prestatzen hasiak dira, izan ere aurretik ibili behar dena antolatzen, gero denontzat izango baldin bada.

Eta gabonak. Txikitxoak hasiak dira Olentzerorentzat eskutitzak prestatzen. Zer eskatuko diot nik? Galdetzen dute. Dena ekarriko dute? Ilusioz beteta, eta hauek bezala gai izango ote gara helduak garenok, ilusioz beteta pasatzeko gabon jaiak. Ea ba, ondo bukatu urtea eta urte berri on denontzat.



Olentzeroren zain izango dira etxeko txikiak, denak txintxo txintxo portatzen opari askorekin kargatuta etor dadin.

Bestalde, hor gabiltza zer egin eta zer ez egin pentsatzen urte amaiera mundial bat antolatu ahal izateko. Zerbait moldatuko dugu halere, aukera asko ditugu eta!

Ondo ondo bukatu urte hau eta 2012ak ekar diezazutela merezi duzuen hori! Ondo pasa eta gutxi gastau! Muxutxuak.

## ZUBIETA

DENIS ELORTZA

## Kit-kat, ikusteke

**B**ilduk eta PNVk Foru Aldundiaren 2012rako aurrekontuen inguruko akordioa sinatu dute eta negoziazio prozesuan eztabaidagai izan dute erraustegia. Badirudi 6 hilabeteko atzerapena adostu dutela Batzar Nagusietan zaborren kudeaketa erduaz eztabaidatzeko. Dena den, hasitako lanak oraingoz ez dituzte etengo. Ez dut uste atzerapen hori Zero Zabor taldeek eta Usurbilgo Udalak behin eta berriz eskatu izan duten moratoria denik. Ikusteke dago 6 hilabeteko kit-kat horretan Batzar Nagusietan garatuko den eztabaidak zer emango duen. Ikusteke eztabaida tekniko serioa izango den edo gure politikariengan ohikoa den etxafuego-zalaparta izango den. Ikusteke PNVk autokritika egingo duen eta atez atekoaren onurak aintzat hartuko dituen edo "estrategiko" hitz hutsalarekin eztabaida zintzoa zikiratuko duen. Ikusteke Bilduk zenbateraino tenkatuko duen soka eta zaborren eskumenaren jabe diren udal eta mankomunitateetan duten gehiengo erabatekoa baliatuko ote duen azken hamarkadan Gipuzkoak bizitako iraultza sozial nagusia bideratzeko. Ikusteke Gipuzkoak berrikuntza sozial eta ekologikoan eredu izateko bidean aurrera edo atzera egingo duen.



## Presoen eskubideen alde elkarretaratzea ostiral eguerdian

**E**uskal preso politikoaren eskubideen alde, hainbat mobilizazio deitu dira asteotarako. Zenbait hitzordu, azaroa amaierako osoko bilkuran gai honen inguruan udalbatzak onartu zuen mozioan biltzen dira. Presoen eskubideekiko errespetua eskatzen du, udal ordezkarien gehiengo osoaren babes jaso zuen testuak.

Dispersioaren amaiera, presoen Euskal Herriratzea, eta gaixo daudenak eta zigorra bete dutenak aske uztea eskatzen du, azaroaren 29ko osoko ohiko bilkuran Bilduk aurkeztu, Egin Dezagun Bidea bilguneko ordezkari batek irakurri eta udalbatzak gehiengo osoz onartu zuen mozioak. "Udal honek, bizi dugun aukera historiko honen aurrean, Euskal Preso Politikoaren eskubideen errespetua eskatzen du", dio aipatu testuak.

### EGIN DEZAGUN BIDEA

"Bizi dugun aukera historiko honen aurrean, Euskal Preso Politikoaren eskubideen errespetua eskatzen dugu"

Bildu eta Aralarrek babestu zuten mozioa, EAJ-PNV-ko udal ordezkaria abstenitu zen eta PSE-EE eta Hamaikabatek aurka bozkatu zuten. Ricardo Crespok ETAk emaniko pausoa ez dela nahikoa zioen, bere esanetan "betiko bukatzea da behar duguna". Eta gaineratu zuenez, "ETAk betiko bukatzen badu, dispersio politikak ez du zentzurik izango".



EGIN DEZAGUN BIDEA TALDEAK  
MOZIOA AURKEZTU ZUEN PLENOAN.

### Mobilizazio deialdiak

Bi hitzordutarako deia ere egiten da azaroaren 29an onarturiko mozioan. Lehenengo ostiral honetarako, abenduaren 16rako. "Udal honetako hautetsiek baraua egin eta eguerdiko 12:00etan kontzentrazioa burutuko dugu", iragartzen du gobernu taldeak aurkezturiko testuak. Bestalde, urtarrilaren 7an Euskal Preso Politikoaren eskubideen alde Bilbon burutuko den mobilizazioarekin bat egiten du testuak. Herri eragileei ere atxikimendua adierazteko gonbita luzatzen zaie, baita usurbildarrei ere. "Herritarrei deialdi zabal eta anitza luzatu nahi diegu, ezberdintasun politiko guztien gaineratik giza eskubideen alde urratsa eman eta herri honek inoiz ezagutu duen mobilizaziorik handiena denon artean osatu dezagun", adierazten da mozioan. Urtarrilaren 7ko hitzordurako atxikimenduak jasotzen hasiak dira, web orrialde honetan: [www.kolosalaizangoda.info](http://www.kolosalaizangoda.info)

### Olentzerorekin kalejiran

Herriko Bota Punttuba edota Kantu Taldekoekin elkarlanean, Egin Dezagun Bidea bilgunetik Olentzerorekin kalejira antolatuta dute abenduaren 24rako. Hitzordua, arratsaldeko 17:30etan finkatu dute frontoian.

### Emakumeenganako indarkeriari aurre egiteko

**H**itzetik ekintzetara pasatzea ahalbidetuko duen politika aktibo, oso eta koordinatua garatzeko konpromisoa hartzen du Usurbilgo Udalak, emakumeenganako indarkeriaren aurka egiteko. Azaroaren 25ean gogorarazi zen Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren haritik, azaroaren 29ko osoko bilkuran Bilduk aurkeztu zuen mozioan jasotzen den puntuetako bat da aipatutakoa.

Mota desberdinetako neurriak hartzea beharrezkotzat jotzen du gobernu taldeak, zazpi emakumeren hilketak eta beste milaka kasu gertatu diren 2011. urte honen amaieran. "Besteak beste, heziketan oinarritutako prebentzio neurriak, eraso baten ondorengo neurri asistentzialak edota erantzun soziala artikulatzeari begirakoak", jasotzen du testuak. Horren haritik gaineratzen denez, "Usurbilgo Udalak biolentzia matxistaren aurka lanean jarraitzeko konpromisoa hartzen du, gure Udalerrian ere irauten duen gaitza baita". Testua, aho batez onartu zuen udalbatzak.

### 2020rako CO2 %20 jaistea, Udalaren erronka

**E**nergia alorreko politiken inguruan konpromisoak hartzera lotuko duen Alkateen Itunarekin bat egin du Usurbilgo Udalak. Aipatu testua izenpetuta, urtebeteko epean, gerora gauzatzen joan beharko duen energiaren alorreko ekintza plan bat diseinatu beharko du Udalak. Guztia, helburu nagusi bat betetzeko; bederatzirekiko barru, 2020. urterako Usurbilen CO2 maila %20an murriztea da finkatua dagoen erronka.

**URDAINTZI**  
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76  
943 36 72 64

eraikuntzi@euskalnet.net

**ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK**

**izagirre**

**ELEKTRIZITATEA**

943 36 50 95-609 06 81 11  
izagirreletrizitate@hotmail.com  
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

**USURBIL AUTOAK**  
-TAILERRA - KARROZERIA - KOTXEEN SALMENTA

**Ford**

**SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!!**

**zerbitzu ofiziala**  
Zumartegi industrialdea

943 36 10 79





# Sendabelar ikastaroa

**A**urten ere, aurreko urteetan bezala Sendabelarren Ikastaroa antolatu dugu. Honetan aditua den Laura Gurbindo irakasle izango dugu berriz ere.

Aurreko ikastaroek oso harrera ona izan dute, bai jasotako eza-gupenengatik, bai emateko moduagatik.

Ikastaroan sendabelarrak eza-gutuko dira, irteerak eginez eta herbarioaren bidez; baita belarrak biltzeko garai egokiak, zer atal erabiltzen den, propietateak eta abar ere; klasean bertan pre-paratu desberdinak egingo dira: txanpua, xaboiak, ukenduak, landare estraktuak, olio sendagarriak, etab.

Ikastaroa urtarrilaren erdialdean hasi eta 16 larunbatetan egingo



URTARRILAREN ERDIALDEAN HASIKO DA IKASTAROA.

da, 9:30etik 13:30era. Oraingoan Santuenean izango da, frontoiko lokalean hain zuzen.

### Informazio gehiagorako

Azkenik prezioa, oraindik zehazteke dago. Izena emateko edo

informazio gehiago lortzeko deitu 661972670 telefono zenbakira edo bidali email bat honako posta helbidera:

[usurbiltzen@gmail.com](mailto:usurbiltzen@gmail.com)

Animatu zaitzete!!

## LIZARDI LIBRYBENDA

### GABONETAKO EROSKETETAN...

#### ERABILI EZAZU LIZARDIN KULTURA BONUA !!!

**+e** **+** **+** **Zer da kultura bonua?**  
 Kutxazainek ematen dituzten sarrera-txartelen moduko dokumentu bat, establezimendu bakar batean kultura-produktuetan **40 euro kontsumitzeko aukera** ematen duena, nahiz eta **erosleak 25 euro ordaindu**. Gainerako 15 euroak Eusko Jaurlaritzak jartzen ditu.

**Zer eros dezaket bonuarekin?**  
**LIBURUAK, MUSIKA, DVDak...**  
 Non lortu dezaket bonua: Servikutxan

Etxebeste kalea, 1  
 © 943 361 115

## Herri osoa enteratuko da... Zure publizitatea hemen

### Kontsulta itzazu publizitate-tarteen prezioak

943 360 321 [publizitatea@noaua.com](mailto:publizitatea@noaua.com) [www.noaua.com](http://www.noaua.com)



# “Guretzat oso ona izan da Q kalitate ziurtagiria eskuratzea”

Gero eta gehiago dira Q ziurtagiria eskuratzeko ahalegina egiten ari direnak. Euskadin, 273 dira Q ziurtagiria jaso duten establezimenduak. Bezeroak erakartzeaz gain, zerbitzu hobea eskaintzeko bidea ematen dielako Q ziurtagiriak. Hala adierazi digute Juan Luis Eizmendik eta Aitziber Martiarenak, Lasarte-Oriako Goiegi jatetxeko arduradunek.

**Zeintzuk izan ziren sistema honen alde apustua egiteko arrazoiak?**

Lehen, beste arlo bateko enpresa batean kalitateko sistema batekin lan egindakoa naiz. Ostalaritza Elkartearen bitartez Eusko Jaurlaritzako proposamen bat iritsi zitzaigun, lagunduko zigutela Q ziurtagiria ateratzen, interesatuta bageunden noski... Eta pentsatu genuen interesgarria izango zela. Azken batean, laguntzen dizu jatetxea hobeto antolatzen eta horregatik sartu ginen.

**Ze abantaila ekarri dizkizue Q ziurtagiria edukitzeak?**

Batez ere barne antolaketa hobetzen lagundu digu. Orain prozedura jakin batzuk ditugu garbiketa bideratzeko, lehengaien erosketak egiteko, errezepziarako... Gure laneko arlo guztiak prozedura horren bitartez finkatuta daude.

Q ziurtagiriak gainera, dinamika batzuk finkatzen dizkizu. Hurrengo urterako helburu berriak lortzeko, esate baterako, eta nahi gabe horrelako hobekuntza fase batean sartzen zara.

**Ezarpenaren ondorioz nolako hobekuntzak izan dituzue, barne funtzionamenduari begira?**

Ziurtagiriak jartzen digun baldintzeta-ko bat da urtero egin dugun jardunaren azterketa bat egitea eta hurrengo urterako helburu batzuk finkatzea. Horren barruan, azpiegitura arloa ere sartzen da baina gure kasuan etxea ez da zaharra eta ez genuen premia handirik izan zentzu horretan.

**Zeintzuk dira bezeroaren asebetetzean zuzenean eragina izan duten hobekuntzak?**

Bezeroen artean atsegintasun inkesta

batzuk egiten ditugu urtean 2-3 aldiz. Horri esker, detektatu ditugu gauza batzuk hobetu beharrekoak.

**Zer esango zenieke turismo arloko profesionali Kalitate Turistikoaren Q-aren ezarpenerako animatu daitezen?**


Dudarik gabe animatu egingo nituzke. Guretzat esperientzia oso ona izan da.

**Beste enpresari batzuei kalitate sistema zertifikatuarekin lan egiteko gomendatuko zenieke?**

Bai, baina sinistu behar du honek bere lana hobetzen lagunduko diola. Beharrezkoak diren bitartekoak jarri behar ditu eta emaitzak eman ematen ditu.

**Kalitate Turistikoaren Q-a prozesuak zure erakundearen kokatze lehiakorrak ahalbidetzen du?**

Bai, Q ikurrak gainera ematen dizu halako prestigioa.



GOIEGI JATETXEKO ARDURADUNAK.

**Kalitatearen kultura zure erakunde bultzatzeko nolako aldaketak sartu dituzu edo sartzeko asmoa duzu?**

Erabaki genuenean Q ziurtagiria ateratzea, garbi izan genuen lankide guztiak partehartu behar zutela %100ean. Saiatu gara langileak inplikatzeko eta erantzuna oso ona izan da. Jendeak oso ondo barneratuta ditu prozedurak. Antolaketa mailan, behintzat, aldaketak nabarmenak izan dira.

**Eusko Jaurlaritzak eta Turismoaren Euskal Agentziak, Basquetourrek, Euskalitekin lankidetzan, behar dituen tresnak eta laguntzak ematen dizkiote enpresaburuari, enpresa lehiakorrak izan dadin, ondorengo programa hauen bitartez:**

**Jardunbide egokirako programak:**

Helburua enpresarioen “profesionalizazioa” eta jomuga-konzientzia sortzea da. Euskadin Kalitate Turistikoarekin Konpromiso Diploma duten 494 establezimendu daude.

**Kalitate Turistikoaren Q programa:**

Bezeroen itzaropenak betetzea eta asebetetzea bermatzen dituen programa.

Euskadin 273 establezimenduk jaso dute Kalitate Turistikoaren Q-a bereizgarria.

**EFQM Bikaintasun eredua:**

Erakundeei kalitatearekin bikaintasun mailaraino igotzea proposatzen dien programa. Eredua honetan parte hartzen diharduten 14 establezimendu daude Euskadin.

**Jarri Kalitate Turistikoaren Q ziurtagiria zure establezimenduan!**

94 607 75 86  
94 404 74 70

[www.turismoa.euskadi.net](http://www.turismoa.euskadi.net)  
[www.euskalit.net](http://www.euskalit.net)



## Abenduaren 22an, "Bertsolari" pelikula Sutegin

### Asier Altuna zuzendariak azaldu dizkigu film honen xehetasunak

**A**upa Etxebeste! pelikularekin ezagun egin zen Asier Altuna. Aurretik (eta ondoren ere) laburmetraia asko egin ditu, telebistarako hainbat iragarki bideratu ditu eta ikus-entzunezko hamaika saltsatan izan da Bergarako zinema zuzendaria. Albistearen harian da hilabete hauetan, Donostiako Zinemaldian aurkeztu zuen "Bertsolari" izeneko dokumentalari esker. NOAUA!rekin solasean aritu da film arrakastatsu honetaz.

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa edo bertsolaritza, zein da "Bertsolari" dokumentaleko gai nagusia?

Bertsolaritzari buruzko dokumental bat dela esan daiteke. Gertatzen dena da 2009ko txapelketa nagusiaren finalean hasi ginela errodatzen. Hortik abiatu zen istorio guztia eta momentu batzuetan final horrek garrantzia gehiago dauka, beste batzuetan gutxiago. Baina proiektu

honen zati inportante bat izan da. Finala berezia izan zen, gainera. Oso berezia. Generazio aldaketa, generoa... Horrek guztiak oinarri inportante bat eman zidan.

Dokumental honi esker, euskaldun ez direnek bertsolaritza hobeto ezagutzeko aukera izango dute.

Helburuetako bat izan da emozioa eragitea, bertsotan askotan hunkitu egiten garelako.

Bigarren helburua litzateke Euskal Herritik kanpo bertsolaritza zer den azaltzea. Madrilgo lagun bati bertsolaritzari buruz hitz egiten badiozu, ez du ulertuko, ez dakielako mundu horretaz ezertxo ere ez. Zentzu horretan, bertsolaritza kanpoan erakusteko izpirituarekin abiatu zen dokumental hau. Hasieratik. Eta uste dut lortu dugula. Bertso zalearentzat erakargarria izango da, baina baita bertsoetaz ezer ez dakienarentzat ere.



19:00ETAN HASIKO DA PROIEKZIOA.

Dokumentala izanik ere, zine aretoetan eskaini da. Ezin kexu azaldu.

Uste dut zorte handia izan dugula. Inork ez dizu ezer oparitu baina pelikula gustagarria izan da hasieratik, eta horrek estreinaldi eder bat egiteko aukera eman digu (Donostiako Zinemaldian). Eta areto komertzialetan banatzeko atea ireki dizkigu, gainera Golem-en moduko enpresa serio baten eskutik. Gehiago ezin daiteke eskatu.

SAIL OFIZIALA





tsua eta ez beti-egarri maitasun eta ohe saltoan

**TXINTXUA FILMS** ik aurkezten du ASIER ALTUNAREN film bat

Maialen Lujanbio, Andoni Egoña, Jon Sarasua, John Miles Folley, Joseba Zulaika, Miren Amuriza

# BERTSOLARI

GIDOIA eta ZUZENDARITZA Asier Altuna. PRODUKZIOA Marlon Fernandez eta Asier Altuna. KOPRODUKZIOA ETS Elena Gozala  
EDIZIOA Laurence Dufrechou. IRUDIA Gotzko Bourgeois. ZUZENKETA SOINUA Pablo Bueno eta Joseba Otxoa. MUSIKA Herrikojak

## Abenduak 22, osteguna arratsaldeko 19:00tan. Sutegin.



**Noaua!**  
www.noaua.com

Sarrera: Sarrerak 5€ (Noaua!ko egoitzan, Txiribogan eta egunean bertan)  
Noaua!ko bazkideek 3€tan erosi ahal izango dute Noaua!ko egoitzan aldezturik

# ★ ikus zirkus

ABENDUAN

26

ASTELEHENA

**Neska Kabaret**

20:00 AUDITORIOA



27

ASTEARTEA

**Mag Lari**

20:00 AUDITORIOA



Somriures i Magia

28

ASTEAZKENA

**Chapertons**

20:00 AUDITORIOA

Boom!



29

OSTEGUNA

**Les Krilati**

20:00 AUDITORIOA



30

OSTIRALA

**Malabaranda**

20:00 AUDITORIOA

Residuo



# Andoain

## Galde erantzunak eta iritzi trukea, hondakinen kudeaketaren inguruan

**A**stebete lehenago prentsa ohar bidez iragarri moduan, PSE-EE-ko udal ordezkari Ricardo Crespok hondakinen kudeaketari buruzko zenbait galdera luzatu zizkion gobernu taldeari; hondakinen bilketaren eta tasaren inguruan Bilduk dituen aurreikuspenez edota Foru Aldundiak inguruotan bildutako organikoa Itsasora (Lapurdi) eramateko asmoez hain zuzen.

Udal ordezkari sozialistak eginiko galdera hauen inguruko argibideak ingurumen eta nekazaritza alorreko zinegotzi Jose Maria Rivadeneyrak eman zituen. Batetik, abian diren autokonpostaje esperientziakin eta hemendik aurrera martxan jarriko diren konpostaje komunitarioko guneekin, Rivadeneyraren esanetan, hondakinen bilketan "jaitsiera egotea espero dugu". Hain zuzen, azaroaren 26an inauguratu zuten Errekatxiki kalean, konpostaje komunitarioko lehen esperientzia gunea. Baina ekitaldi hartan eta azken osoko bilkuran ingurumen alorreko zinegotziak esperientzian inguruan berretsi zuenez, gune "gehiago egingo dira".

Azken aldiko bilketen inguruko zenbait datu ere eman zituen Rivadeneyrak. 2010ean 911 tona bildu ziren Usurbilen; aurten, ekainera arte 437 tona jaso dira. Hondakinen tasari dagokionean, 2012an KPI-ko igoera aplikatzea aurreikusten dute. Hemen bildutako organikoa Iparraldera eramateari dagokionez, hartutako erabakia ez da behin betikoa izango azken osoko bilkuran Bildutik iragarri zuten. Gai honen inguruan, "irtenbide finko bat dagoenean, orduan izango da informatzeko unea", gaineratu zuen Rivadeneyrak.



ZERO ZABOR TALDEAK  
HITZA HARTU ZUEN PLENOAN.

### Zero Zaborren aldetik, jarrera argitzeko eskaera

"Zein da zuen jarrera?" galdera zuzena egin zion azaroaren 29ko osoko bilkuran, hitzordura bertaratu zen Usurbil Zero Zaborreko kide Joxe Mari Irazustak PSE-EE-ko udal ordezkariari. Hondakinen kudeaketaren gaiari lotuta bere jarrera argitzeko eskatu zion Crespori. PSE-EEko ordezkaria ahal den organiko gehiena konpostatzearen alde agertu zen, baina gelditzen den erreus zatia erraustu beharko zela adierazi zuen.

Bide alternatiboan bideragarritasuna defendatu zuen Irazustak; hala nola, une honetan organikoa Itxasora garraiatzea, Lapatxeko plantak tratatu beharreko organiko kopuru guztiari ezin diolako aurre egin.

Urteotan hondakinen kudeaketari lotuta dagoen arazoa konpontzen ahalegintzen aritu direnen lana oztopatzen saiatu direla ere gogorarazi zuen Irazustak, Crespori zuzenduta. "Egin ez, egiten utzi ere ez", zioen UZZ-ko kideak. Adibide moduan, eraiki nahi izan diren konpostaje planta egitasmoak auzitara eramanez direla gogorarazi zion UZZ-ko kideak PSE-EEko ordezkariari.

### Hilerriko hilobien seigarren lotea esleituko du Udalak

**H**ilerriko Alzifrea kalea 13ko ezkerreko hiru hilobiz osaturiko panteoi erdia, kale bereko, 1, eta 3ko sei hilobiko panteoi osoak eta Alzifrea kalea 5eko panteoiko 5 hilobi esleitzeko asmoa du Usurbilgo Udalak. Hala erabaki zuen udalbatzak aho batez, azaroaren 29an burutu zen osoko ohiko bilkuran. Hilobien eskubideak emakida administratiboaren bidez esleitzeko jardunbidea arautuko duten klausula juridiko, ekonomiko eta administratibo bereziak onartu ditu udalbatzak. Erabakitakoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Hortik aurrera, hilobiak lortu nahi dituzten interesdunek eskabideak aurkezteko 30 eguneko tartea izango dute.

### Atalluko Plan Partziala

Hirigintza alorreko beste gai bat ere ahotan hartu zuen udalbatzak, azken osoko bilkuran. Behin betikoz onartu zuen Atalluko Plan Partzialaren hiru-garren aldaketa. Plan Partziala Foru Aldundira igorriko dute eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Proposamenaren alde agertu ziren Bildu, Aralar eta Hamaikabateko udal ordezkariak. Abstentziora jo zuten aldiz, PSE-EE eta EAJ-PNVko zinegotziak.

### Sekañako proiektua

Bestalde, Dekretu bidez Sekañako eremuko II. Fasea hiritartzeko proiektua exekutatzeko obra kontratua, Bardera Obras Civiles y Maritimas S.L. enpresari esleitzea berretsi zuen udalbatzak gehiengo osoz.

**TXAPELDUN  
TABERNA**  
razioak  
ogitartekoak  
plater konbinatuak...  
Muna lurra 2, 943 11 82 53

**JOSETXO IKATZETA**  
Iturgintza  
TEL: 943 36 20 26  
687 95 12 25

**Jose Aizpurua**  
**Unanue eraikuntzak S.L**  
teillatuak eta fatxadak  
943 37 38 79 - 620 80 01 86  
Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

## Animatu gazte!

**Aupa gazte! Aurreko hilabetean, “Agaya” ren lehen atalean ITAYA gazte asanbladaren sorreraz mintzatu ginenez, hauxe izango da gure pasartetxea osatuko dugun bigarren aldia. Gaurkoan, bertan idatziko ditugun edukiez eta hauen helburuez mintzatuko natzaizue.**

Izan ere, ITAYA gazte asanblada osatzen dugunok oso kezkatuak gaude Usurbilgo eta, orokorrean, Euskal Herriko gazteriaren zati handi batek inguratzen gaituen munduaren aurrean hartu duen jarrerarekin.

Gauza jakina da Usurbilgo gazteria (orokorrean) axolagabekeriaren eta ondoriozko ezjakintasunaren amaraunean erori dela. ITAYA osatzen dugun gazteok eta, bereziki, komunikazioko lan taldeakook (Agayaren elaborazioan lan egiten dugunok, alegia), arazo hau konpontzea ezinbesteko ikusten dugu. Horregatik, “Agaya” ren bitartez irakurlearengan erreakzio bat (positiboa edo negatiboa) eragiten saiatuko gara, gaurkotasuna duten gaien inguruko hausnarketak eta azterketak eginez, beti ikuspuntu subjektibo bategatik. Azken finean, ITAYAREN helburu nagusienetako bat lortzeko tresnatzat har dezakegu “Agaya”, gazteri usurbildar loti eta axolagabea ahal dugun heinean informatu eta gazteri kultu eta kritiko bat bilakatzea baita gure ametsa.

### ITAYAREN BILERAK

“AEK-ko bulegoetan,  
hamabostean behin biltzen  
gara, gaueko hamarretan”

Usurbilen gazte guztiok konturatzeko gara egoera honetaz, baina gehiengoak nahiago du ez ikusiarena egin eta lokal zuloan play station-ean edo kartetan jolastu, futbola ikusi edo porroak erretzen egon, norberak bere garuna pixkanaka urtzen utziz eta inguratzen gaituzten arazoak alboratuz, ez da nahikoa 5 bat Keler gainean ditugula “Gora Euskal Herria” esatea, txo!



**DURANGOKO AZOKAN.** Itaya Gazte Asanbladak Usurbilgo gazteak Durangoko azokako euskal kulturaz betetzea helburu izanik, deialdia zabaldu eta ostegunean, abenduak 8, Durangon bertaratu ginen. Goizeko 9etan tren hartu eta ordu t'erdia pasatxoko bidaia egin ondoren, azokaz gozatzeko aukera izan genuen. Giro paregabea joan zen eguna!

Lokalaren fenomenoak gazteriaren sakabanaketa ere eragin du, “kuadrilla” bakoitza bere lokalean sartuta egoten baita, gazteriaren indarra eta herriko bizipoza murriztuz. Egia da herrian gaztetxe bat ez edukitzeak ez duela askorik laguntzen (Akerrak “gaztetxe” izateari aspaldi utzi zion, gaur egun kontzertuak egiteko areto soil bilakatu da, urrutiegi baitaukagu herritik). Lokaletik ateratzea zaila da, sarritan oso zaila, baina ITAYAtik usurbildar gazte orori 2 ostiraletatik behin burutzen ditugun ITAtara (Iraultza Txikien Asanbladetara) etortzeko gonbidapena luzatzen dizuegu.

Gustoko duzuen lan taldean sar zaitezke eta lokala utzi gabe beste ekintza anitzen artean, gune autogestionatu bat behar dugula demostra-

tu eta aldarrikatu. Benetako gaztetxe batek lokalaren beharra nabarmenki murriztuko duela uste dugu, gainera herriari beste bizipoz bat emango lioke. Horrela, kulturaren pribatizazioari aurre egingo genioke, plaza berreskuratu eta gazteok bizitza soziala benetan kalean egingo genuke eta ez zulo batean.

Amaitzeko, etorkizun hobe baten alde borrokatzeko prest bazaudete, Usurbilgo eta Euskal Herriko belar txarrak gurekin errotik moztera gonbidatzen zaituztegu, ez izan lotsarik! AEK-ko bulegoetan, hamabostean behin biltzen gara, gaueko hamarretan. Edo bestela [itaya@euskalherria.org](mailto:itaya@euskalherria.org) helbidera mezu bat idatziz jar zaitezke gurekin kontaktuan.

Animatu gazte!

## Parte hartze ona, Mendi Astean

**E**kitaldiek izan duten harrerarekin gustura dira antolatzaileak, balorazio baikorra egin dute Andatza Mendizale Elkartetik, ospatu berri den Mendi Astearen inguruan. Bestetik, urteko batzarra urte hasieran izango dela iragarri du Andatza elkarteak kudeatzen ari den talde txoak.



ARGAZKI LEHIAKETAKO IRABAZLEAK,  
SARIAK JASO BERRITAN.

Ikus-entzuneko bi proiektzio ikusteko aukera egon da, azaroaren 30ean hasi eta abenduaren 3ra arte luzatu zen edizioan; Felipe Uriartek Koskulak mendira eginitako irteeraren ingurukoak bata, eta Andatzako kide Joakin Pagolak Himalayako Cachemirara eginitakoak. Abenduaren 2an banatu ziren bestalde, estreinakoz antolatua zuten "Andatzako Txokoak" izeneko argazki lehiaketako sariak. Parte hartzaileek baldintza nagusi bat bete behar zuten; Andatza atera behar zuten lehiaketara aurkeztu beharrek argazkia. Guztira, 26 lan lehiatu dira txapelketan. Hiru irudi onenak saritu zituzten joan den hilaren 2an.

### Andatza Argazki Lehiaketa

- 1- Kami Vidal: "Iragana".
- 2- Joxe Mari Ikutza: "Oiaro".
- 3- Kerman Errekondo: "Naturaren oparia".

### Batzarra urte hasieran

100, 75 eta 50 euroko sari bana irabazi dute hurrenez hurren, hiru irudi onen egileek. Sari banaketaren aurretik, urtean zehar Andatza Mendizale Elkartetik antolatu diren irteeren irudi eta bideoak proiektatu zituzten auditorioan. Sariaketaren ostean, erakusketa aretoan txapelketan parte hartu zuten irudi guztiak ikusteko eta luntxa dastatzeko aukera egon zen. Mendi Astea borobiltzeko, abenduaren 3an irteera eta babarrun jana burutu zuten.

Antolakuntzatik iragarri dutenez, Andatza Mendizale Elkartek 2012ko urtarrila edo otsaila aldean burutuko du urteko batzarra. Aurrerago zehaztuko dute hitzordua. Bestalde, mendizaleen bilgunitik berri eman dutenez, datorren urteko irteeren egutegia definitzeko lanetan dihardute.

## Yoga eta sabel dantza ikastaroak

**A**erobik, spinning, pilates, gimnasia edota tonifikazio ikastaroekin batera, yoga eta sabel dantzetan trebatzeko aukera egongo da kiroldegian, urte berria hastearrekin batera. Saiok urtarrilaren 16an hasi eta ekainaren 30era arte luzatuko dira. Interesa duen edonork proba egiteko aukera izango du egunotan: urtarrilaren 9an, sabel dantzan goizeko 10:00etan eta eguerdiko 12:00etan. Eta urtarrilaren 12an,

16:00etan eta 18:30ean yoga probatzeko aukera egongo da. Kirol Patronatutik diotenez, "ekintzak gaitutako irakasleok emango ditu eta esperientzi berri on eta atseginak probatzera animatzen zaituztegu!". Proba egunen ostean abiatuko dira sabel dantza eta yoga saiok. Hori bai, antolakuntzatik jakinarazi dutenez, "beharrezkoa da Kirol Patronatuak ezartzen duen gutxieneko partaide kopuru batek izena ematea".

### Errifa zozketan saritua

**9**.385 zenbakia izan da eskubaloi taldeak biltzen dituen elkarteak eginitako azken errifa zozketako zenbaki saritua. Jabeari, Roman Manterola herritarrari bi laguntzat otordua egokitu zaio Atxega jatetxean. Ohi bezala, Usurbil Kirol Elkartetik zozketan parte hartzen duten jatetxeak eta errifak erosten dituzten herritarrek eskertu nahi dituzte.



RAMON MANTEROLAK BIRENTZAT  
OTORDUA IRABAZI DU ATXEGAN.

### Usurbil FTko bazkidetza kanpaina

**Z**er egin behar behar da Usurbil FT-ko bazkide izateko? Caja Rural-Ipar Kutxaren sukurtsalean "Socio Usurbil FT K/K-n" 20 euro ingresatu eta izena eta bi abizenak adierazi. Haraneko tabernan ordainagiria aurkeztuz gero elkarteak ondo erregistratuko du eta dagokion oparia banatuko du. Erregistratuta dauden bazkide guztiek, 2011ko gabonetako zozketan parte hartuko dute UFT zenbakiarekin: 98480.

### Eskubaloi partidak, abenduak 17 larunbata

Senior mutilak, 2. Territoriala. 16.30h  
Usurbil K.E. - Ordizia Vicuña Sport

Senior mutilak, 2. Nazionala. 18.00h  
Atez Ate Usurbil - Soraluez Bergara KE

Andoni Errazkin  
**Xukin**  
igeltseritza orokorra  
Barne eta kanpoko lanak  
**USURBIL**  
663 08 76 71 • 943 24 34 65

ZUBIAURRENEA 4, USURBIL  
ileapaindegia  
943361951  
mistoa

**ANTXETA**  
taberna-jatetxea  
eguneko menuak  
ogitartekoak  
plater konbinatuak  
Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

**Poxpolin**  
MERTZERIA  
943 36 82 06  
Zubiaurrenea 3, baxua

## Erraustegiaren oinarrizko proiektua suspentsoan utzi du Konsorzioak

**Z**ubietan eraikitzen ari diren errauste plantaren oinarrizko proiektua sei hilabetez suspentsoan uztea erabaki du Gipuzkoako Hondakinen Konsorzioak. Eta datorren urte erdian, bilketa sistema hobetu eta hondakinak kudeatzeko alternatibak bilatzeko konpromisoa hartu du aipatu erakundeko Administrazio Kontseiluak. Foru Aldunditik ere, egitasmoaren inguruan hartu beharreko edozein erabaki sei hilabetez atzeratzearen alde agertu dira.

Hurrengo sei hilabetetarako ere beste helburu bat finkatua du GHK-k: "alderdien artean ahalik eta adostasun handiena lortzea, hondakinen kudeaketa eraginkorrago bat gauzatzeko". Gipuzkoako Mankomunitate batek eta herrialdeko biztanleriaren ia %60a ordezkatzen duten 38 udalek ere bilketa sistema eraginkorragoa burutzeko nahia agertu dute. Gai hauek oso gertutik jarraitzen ari den ingurumen alorreko diputatu Juan Karlos Alduntzin, Zubietako errauste plantari loturiko moratoriaren inguruan hitz egitera dator Sutegira, ostegun honetan, abenduaren 15ean. "Moratoria: zertarako eta alternatibak" izenburupean, hitzaldia eskainiko du



JUAN KARLOS ALDUNTZIN DIPUTATUA OSTEGUNEAN SUTEGIN IZANGO DA HIZLARI.

iluntzeko 19:00etatik aurrera Sutegin. Ekitaldia Usurbil Zero Zabor bilguneak antolatu du.

### Auzitara

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen alorreko sailburu ordeak Zubietan eraikitzen ari diren erraustegiaren ingurumeneko baimen bateratua ematen zuen ebazpenaren aurka auzi-errekurtsua tartekatuko du Usurbilgo Udalak. Horretarako abokatu eta prokuradoreak izendatzeko proposamena berresteko gaia aurkeztu zuen Bilduk azaroaren 29an burutu zen osoko ohiko bilkuran. Gobernu taldearen eta Aralarren babesarekin berretsi ziren erabaki eta izendapenok. Hamaikabat, PSE-EE eta EAJ-PNV-k abstentziora jo zuten.

### Eriz Magoa, Santuenean

**H**asiera batean, abenduaren 21erako iragarria zegoen, baina antolakuntzatik ohartarazi dutenez, ostiral honetan, abenduaren 16an eskainiko du Eriz Magoak bere emanaldia, Santuenean. Aurreikusitako ordu eta leku berean; 17:30etatik aurrera, auzoko frontoi berrian. Santuenea Elkarteak antolatutako emanaldia doakoa da.

### Elkarte arteko mus txapelketa

**L**arunbat honetan, abenduaren 17an jokatu da urteroko elkarte arteko XIV. Mus Txapelketa. Aginaga, Andatzpe, Mahaspildegi, Eguzki, Yoko Garbi, Aitzaga, Erroizpe, Peña Pagola eta Ibai Ondo elkarte bina bikotek aurtengo txapela lortzeko lehian arituko dira, 17:00etan hasita Santueneako Ibai-Ondo elkartearen.

### Gaztelekua eguberrietan

**H**ainbat ekimen antolatu ditu Gaztelekuak eguberrietarako. Hasteko bi txango. Astelehen goizean, abenduaren 19an, Zubietan XXI bizikleta irteera DBH 1. mailakoentzat. DBH 3 eta 4 mailetako ikasleekin aldez, Donostiako Txuri Urdin izotz jauregira doaz abenduaren 22an, arratsaldean.

### Udarregikoak kantari

**O**hi bezala, Udarregi ikastolako ikasle eta irakasleek gabon kantak abestuz emango diote ongi etorrria eguberriari. Abenduaren 22an izango da. 9:30ean LH eta DBH-koak irtengo dira lehenik. 11:25 aldera HH-koen txanda izango da.

### 1977ko kinto bazkaria

**K**into bazkaria antolatu dute 1977. urtean jaiotako herritarrentzat. Otordua Iruin sagardotegian ospatuko dute, larunbat honetan, abenduaren 17an. Izena aldeztu aurretik, hilaren 16a baino lehen eman behar da, Irrati eta Karobi tabernetan. Informazio gehiago: 660 614 715.

### Zumartekoak Arrasateko Akordeoi Lehiaketan

**A**banduaren 4an, Arrasateko Akordeoi Lehiaketan Zumarteko ikasleak lortutako emaitzak honako hauek izan ziren: Intza Apezteak "Zilarrezko domina", Asier Iruetagoienak azkenean ez zuen parte hartu eta Imanol Iribarrek "Urrezko Domina" lortu zuen.



**txirriStra**  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**LATAILLADE**

**ITURGINTZA**

Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua

Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021



## Agenda !!

### Abenduak 15 osteguna

-Pello Añorga ipuin kontalaria udal liburutegian, 18:00etan. HH5ekoentzat  
- Juan Carlos Alduntzin foru diputatuaren hitzaldia Sutegin, 19:00etan.

### Abenduak 16 ostirala

- Bakarrizketak, Zubietako Kaxkapen 22:00etan.  
- Angel Rekalde eta Beñi Agirrerren hitzaldia Sutegin 19:00etan.

### Abenduak 17 larunbata

- V. Jostailu Erabiliaren Azoka goizez.  
- Mixel Etxekopar Sutegin, 20:00h.

### Abenduak 18 igandea

- Santo Tomas azoka frontoian.

### Goardiako farmaziak

Abenduak 1, osteguna  
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Abenduak 15, osteguna  
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Abenduak 16, ostirala  
Acha-Orbea, Hipodromo 6 Lasarte

Abenduak 17, larunbata  
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Abenduak 18, igandea  
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Abenduak 19, astelehena  
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Abenduak 20, asteartea  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Abenduak 21, asteazkena  
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Abenduak 22, osteguna  
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Abenduak 23, ostirala  
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Abenduak 24, larunbata  
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Abenduak 25, igandea  
Gil, Nagusia 24 Lasarte

\* Larunbatetan, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
Aizpurua, Laxunbe Berri, 11, Hernani  
Telefono zenbakia: 943 336 077.  
[www.noaua.com](http://www.noaua.com) webgunean 2011ko egutegia

## Animaliek inguratuko dute igandeko Santo Tomas azoka

**I**gande honetan, abenduaren 18an ospatuko da NOAUA! Kultur Elkarteak eta Sagardo Egunaren Lagunak elkarrekin antolatu ohi duten Santo Tomas azoka. Aurtengo edizioak gainera, berrikuntzak dakartza.

Iaz ikusi edota dastatu ahal izan zenaz gain, aurten inguruotako zenbait baserritako animaliak ere ikusteko aukera egongo da. Zaldi bat, bi behor, bi idi, bizpahiru ahuntza... Taloa eta txistorra dastatu ahal izango da, baita babarrun krema eta sagardoa ere. Postu bana jarriko dute bestalde, euren egitasmoa ezagutzera emateko Usurbiltzen Elkarteak. Eta ikasturte amaierako bidaia diruz laguntzeko,



AZOKA EGUERDIAN IZANGO DA.

etxean eginiko postreak salduko dituzte Udarregi ikastolako ikasleek.

### 12:30ean, kantu-jira

Eguerdiko 12:30erako kantu-jira deitu dute Kantu Taldekoek. Baserritarrez jantzita eta kantu liburuxka esku artean izanda, hitzorduan parte hartzeko gonbita luzatu dute.

## Mixel Etxekoparren kontzertua larunbatean, Nafartarrak taldearen eskutik

**Z**uberoako Eperra ikastola laguntzeko kanpaina antolatu du Nafartarrak taldeak eta bere baitan, egunotarako hiru ekitaldi deitu ditu. Hasteko, ostiral honetan, abenduaren 17an, Angel Rekaldek eta Beñi Agirrek Euskal Herriko historiari buruz jardungo dute Sutegin, iluntzeko 19:00etatik aurrera. Leku berean, baina larunbat iluntzeko 20:00etan, Mixel Etxekoparrek emanaldia eskainiko du. Ordubetez Zuberoako musika tradizionalaz gozatzeko aukera izango dela aurreratu dute antolatzaileek. Sarrerak egunean bertan salgai izango dira, 6 eurotan. Kanpaina borobiltzeko, abenduaren 20rako beste hitzaldi bat progra-



SUTEGIN ARITUKO DA,  
19:00ETAN HASITA.

matu dute Nafartarrak taldekoek. Mauleko alkate Michel Etxebestek Xiberoko ekonomiaren egoera hartuko du ahotan, iluntzeko 19:00etatik aurrera Sutegin.

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**Patri Jatetxea**

K/nagusia 14. © 943 362 725

**TAXI**

607 92 87 70  
943 00 44 83

Angel (24h) USURBIL

**Errazkin S.L.**

igeltseritza orokorra  
943 372 679 eta  
649 435 470

kale nagusia 47, behe A

## ETXEBIZITZA

- Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukaldia, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318.
- Pisu salgai Atxegalden. Sukaldia, egongela handia, 3 logela, bi komun, ganbara eta igogailuarekin. 662 056 899.
- Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro karratuko trasteroa, dena berrituta, fatxada eta teilatua konpondu berriak. 677 471 648.
- Altxariak izan eta bi gela dituen alokairuko pisu baten bila gabilta Usurbil inguruan. Fidantza eman dezakegu. 626 154 994 / 697 230 419.
- Etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. 3 logela, 2 bainu-gela, sukaldia eta egongela. Tlf.: 626 347 914.
- Etxebizitza salgai Santuenean. Hiru logela, sukaldia, komuna. 120.000 euro. 665 736 896 (Inaki).
- Usurbilen, 70 metroko etxebizitza bat alokatzen da, eguzkitua. Tlf: 608 671 925. Imanol.
- Pisu alokairuan Atxegalden. 3 gela, sukaldia, bi komun, terraza eta igogailuarekin. 943 371 066 / 637 309 209.
- Etxebizitza bat alokatzen da Excealdin. 2 logela, sukaldia, egongela. Eguzkitua eta berritua. 620 565 731.
- Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukaldia, komuna eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.
- Alfaron dudan pisua zonalde honetan etxebizitza duen norbaitek trukatu nahiko nuke. 941 182 562.
- Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekinertik aurrera). 622 856 181.
- Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. Telefonoa: 699 720 940.
- 60 metro karratuko etxea salgai Santuenea 26an. Sukalde handia, egongela, 2 logela, komuna, 2 balkoi eta 3 leiho, dena kanpokaldera ematen duena. Ganbara eta 12 metro koadro trasteroa. 185.000 euro. 666539284
- 85 metroko etxebizitza alokatzen ditur kaxkooan 3 gela, 2 terraza eta trasteroa. 616064059 (gautetan deitu).
- Alokairuan den pisu baten bila nabil. Idoia 695733535.
- 90 m pisu bat salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldia, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitua eta bizitzaren jartzeko moduan. 699 680 265 (eguerdian edo 20:00etik aurrera deitu). 237.000 euro.
- Lokala alokatzen da Atxegalden (lehen Truke zena). Prezioa: 360 euro. 943 373 414.
- Orioko Alde Zaharrean, etxebizitza bat salgai. Bi logela, bainu gela, sukaldia-sala. 661 679 691.
- Etxebizitza alokatzen da, Oropesa de Mar 655 731 915.
- Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu. Aukera etxe azpian garajea erosteko. 699720940
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegi ondoan. Tlf. 646.041915 Amaia.
- Kale Nagusia 10, lokal komertziala salgai, 133 m2. 943 365 299
- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska eskualdunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- 230 metro etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro koadro lursailen. Kalezarren. 665720913.
- Baseri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Kaxkooan etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldia, bi balkoi, igogailua, ganbara. 607 924 407.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitutu batean. 671800275.

## SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Opel Corsa 1.4 Twinport Ecotec 66kw/90 cv salgai. Aleazio lantak 16, aurreko lainotako argiekin. Aire egokitu, ABS eta parrila. Gidari, kopilotu eta alboetako airbag-a. CD 30 MP 3 bolantean aginte-tresnarekin. Margotu berria eta neumatik berriekin. Gidari bakarra izan du orain arte. 88.500 km. Prezioa: 7.250 euro. 678 332 646
- Lokal komertzial bat alokatzen da Atxegalden, Aristitxo kalean. Bi solairu, bakoitza 45 metrokoa, gutzira 90 metro. Argia, ura eta komuna. 658 716 970.
- 38 m2-ko garaje itxia salgai, Txaramunton. 665 677 195.
- Garaje itxi bat alokatzen da Artzabalen. 647 120 253.
- Lehenengo jaunartzeko soineko bat daukat salgai. 669645585 edo 943365191.
- 5800 metro karratuko lur eremua salgai Usurbilen, 150 sagarondorekin. Deitu: 943 361 463
- Nissan Almera salgai. Matrikula: SS-BG. Prezioa: 1.500, IAT (ITV) pasea du. 615 798 479.

- Garaje lerroa salgai Munalurran. 678 225 241.
- 50cc-ko motorra salgai. 2 urte, oso kilometro gutxi. Betei garajea, ondo zaindua. 622369646.

## LANPOSTUAK

## Lan-etsaerak

- Atsedena agindu dioten ama batek ama den emakume eskaldun eta eskarmentuduna behar du, egunean 4-5 orduz haur bat zaindu eta etxeko lanetan laguntzeko. 607263383.
- Zerbitzari eskaldun bat behar da asteburutan lan egiteko. Lan egin nahi baduzu, deitu zenbaki hauetara: 680 483 164 / 607 454 879
- Iratxo tabernan pizza banatzaile baten bila gabilta. Banaketa afaritarako garaian egingo da. Beharrezkoa motorra edo kotxea izatea. 943369135
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska baten bila gabilta. Nahiago Usurbilgoa eta eskualduna izatea. 676355635.
- LH-n edota DBH-n klase partikularrek emateko prest egongo al zinateke? Hala bada, pasa zaitze Udaregi Ikastolako idazkaritzatik izena ematera.

## Lan-etsakintzak

- Emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko. Interna moduan ere bai. Tlf.: 673 445 903.
- Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324
- Umeak zainduko nituzke arratsalde, edo zerbitzari moduan lan egin nahi nuke asteburuetan. 638 894 845.
- Usurbilgo neska gazte bat naiz, Heziketa Berezian diplomaturia eta psikopedagogian lizentziatua. Goizez nahiz arratsalde, klase partikularrek emateko zein haurrak zaintzeko prest. Badut esperientzia baita hezkuntza premia bereziak dituzten haur eta gazteekin ere. 688 661 997 / 943 365 005.
- Neska eskualduna eta usurbildarra naiz, eta arratsaldetan haurrak zaintzeko zein klase partikularrek emateko prest. Atzerriko Hizkuntzako Majisteritzan eta Haur Hezkuntzan diplomaturia naiz. Badut esperientzia. 652712099.
- Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko, edo etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. Tlf.: 628 692 334.
- LHko haurrentzat klase partikularrek emateko neska eskaintzen da. 680 453 563 (Maialen).
- Emakume arduratsua eta erreferentziak eskaintzen da, etxeko lanak egin, umeak zaindu, edo lan desberdinak egiteko. Lana behar dut. Tlf: 626 370 969.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrek emateko prest. Matematika, Marrazketa... Tlf: 687 674 161.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egin, umeak zaindu... Esperientzia daukat, kotxearekin eta euskaraz dakit. 943 365 079.
- Matematikako klase partikularrek, maila guztietan, 18 urtetako esperientzia. 646717676.
- Ingeles neska natiboa, haurtzaindegiko irakaslea 3 urtetik 8 urte arte klase partikularrek emateko prest. 656753063.
- Esperientzia duen neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko. 660041361.
- Emakume eskaldun bat eskaintzen da adineko pertsona bat zaintzeko, nahi den ordutegian. Disponibilitate osoa ordutegi aldetik, astelehenean ostriarera. 687 348 223.
- Bertako emakumea, 50 urte, dibortziatua eta famili kargarik gabe, pertsona nagusiak zaintzeko eskaintzen da. Interna lanetarako ere. 697 245 186, Idoia.
- Emakume bat eskaintzen da, interna moduan lan egiteko. Erreferentzia onak. 661 091 863.
- Umeak zein helduak zaintzeko edo ostalaritzan aritzeko neska bat eskaintzen da. 616376591 / 943243119
- Neska esperientziaduna eta ikasketa titulatuak egina pertsona helduak edo ezinduko zaintzeko, garbiketa lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko eskaintzen da. 666773813
- Orduka umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko eskaintzen da neska bat. 663294970
- Aleman eta Ingeles natiboa, klaseak ematen ditut Usurbilen. Interesatuak deitu 622 856 181.
- Etxeko lanak egin edo haurrak zein pertsona helduak zaindzen edo dendarri lanetan aritzeko nintzateke goizez. 620 093 697.
- Garbiketa lanetan edo dendarri moduan lanean aritzeko neska bat eskaintzen da. 626618097.
- Emakume esperientziaduna eta erreferentziak eskaintzen da

- gautetan adineko pertsonak zaintzeko. 618410123
- Emakume bat eskaintzen da interna moduan adineko pertsona zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. 635267221
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo adineko pertsonak zein haurrak zaintzeko. Orduka edo interna moduan aritzeko. 633709347.
- Lehen Hezkuntzako diplomaturak klase partikularrek ematen ditu ikasgai guztietan. Usurbilgo lokalean. 688 681 557 edo imakulada@gmail.com
- Neska bat eskaintzen da orduka zein interna moduan lanean aritzeko Usurbil eta inguruetan etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko. 696537247
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 603794547.
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 635217362.
- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri, baratzeko lanak, mendia garbitzeko edo igeliseritza lanetarako. 677593772.
- Etxeko lanak egiteko prest nago, baita jende nagusia edo gazteok orduka zaintzeko ere. 606 800 837.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziaduna. 658107757
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411.
- Jardineritza lanak egin ditut. Inaki: 677 44 31 40.
- Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketa lanak egingo nituzke. 656446835.
- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zein arratsalde orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest: 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608 835 033.
- Etxeko lanak egiteko neska bat prest. 630 768 325.
- Pintore/burdinlari gisa lan egiteko prest. 654 217 752.
- Fisika eta matematikako klaseak emateko prest. LH-tik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.

## BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Olenzeroari eskatu badiozu telebista berri bat, neuk telebista zaharra (baldin badil, noski) gustora erretiratuko nituzke ikasle pisu batenatzeko. Tlf: 675 71 72 67. Irene
- Arratoi mestizo arrazako txakur bat oparitzen da. Urte eta erdikoa, oso leiala. 666 454 930
- Hiru metroko bambu kañaberak trukerako edo saltzeko. 620 809 568 (Manu Aranburu)
- Gas naturalarekin funtzionatzen duen bost sutako sukaldia labarekin. Egoera onetan eta oparitzeko, prezioa da. 661 264 405 (arratsaldetan deitu).
- Zaldi bat jartzeko lursail bat alokatuko nuke Usurbilen. Telefono zenbakia: 616 260 451.
- Bi hilabeteko bost txakur-kume gara etxe bila. Mesedez, eraman gaitzazue. 635 714 030.
- Belarritakoa galdtu nuen Santixabel egunean, kaxko inguruan. Balio sentimental handia du, aurkitu baduzu, deitu telefono honetara: 687 406 209.
- GPS Tomtom berria salgai. 600 244 126.
- Akordeioa saltzen dut. Guxi arabilia. 943 370 344.
- Masajeak ematen ditut: reflexologia, siatsu, masaje orokorra... 943 365 079 deitu eta utzi zure mezu.
- Usurbil eta inguruetan, belardiak behar dira, belarra jasotzeko. Tel: 607457004. Dani
- Sukaldari bat eskaintzen da famili nahiz lagun arteko bazkariak antolatzeko eta prestatzeko erretetan, elkarte gastronomikoetan..... 670 410 273.
- Lehenengo jaunartzeko soineko bat daukat salgai. Interesatuta baude: 669645585 / 943365191.
- Hemengo intxaurrak salgai. 943 67 11 60.
- Aiako babarruna salgai, prezio onean. 670410273.
- Wii-a eta PSP-a kopiatzen da, Internetetik jaitzistako joko guztietan jolastu ahal izateko. Ez da txipik instalatzen, ez da konsola irekitzen. Softwarea aldatzen da baina garantzia mantenduz. 635 729 637.
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Inaki).
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari liriko. Maketa bat entzungai daukat. 690784113

## JAIOTZAK

Hugo Sanchez Sanchez, urriak 17

Udane Aiestaran Iraeta, urriak 27

Danel / Argia Izagirre Akarregi, azaroak 12

Maiarena Sanchez Alonso, azaroak 19

Haitz Oliva Etxaburu, azaroak 22

Ekhi Nazabal Lizaso, azaroak 23

Ainhoa Villafila Roldan, azaroak 23

Katixa Garitaonandia Sagarna, azaroak 25

Asier Gaztañazpi Pereda, azaroak 25



## Zorionak eta urte askuan, Ibai!

Abenduaren 15ean ederki ospatu diagu hire 4. urtebetzea. Bizkotxo... deliiiiixius! Muxu handi bat etxekoan partez.



## Zorionak Haitz, dagoeneko 6 urte!

Ongi pasa etxekoan partez. Muxuak!



## Zorionak Aner Matxain! 4 urte bete

zenituen abenduaren 5ean. Zorionak eta muxu potoloak familikoan partetik. Urte askoan hain txintxoia izaten jarrai dezazula!

## HILDAKOAK

M<sup>a</sup> Pilar Urkia Arruti  
91 urterekin hil zen  
azaroaren 30ean, Usurbilen



## HILDAKOAK

Jose Luis Zugasti Garate  
94 urterekin hil zen  
abenduaren 5ean, Kalezarren

# Otar goxoenak... Usurbilgo dendetan aurkituko dituzu

## USURBILGO OTARRA (Handia)

USURBILGO INTXAURRA 500 G.  
USURBILGO BABARRUN BELTZA 500 G.  
SAGARKI SAGAR DULTZE NATURALA 360 G.  
ARDI GAZTA 300 G.  
AGIÑA PIPERRAK 345 G.  
GOZOTIK SAGAR ZUKU EKOLOGIKOA.  
USURBILGO SAGARDOA.

**28€**



## USURBILGO OTARRA (Txikia)

USURBILGO INTXAURRA 400 G.  
SAGARKI SAGAR DULTZE NATURALA 360 G.  
ARDI GAZTA 300 G.  
AGIÑA PIPERRAK 195 G.  
GOZOTIK SAGAR ZUKU EKOLOGIKOA.  
USURBILGO SAGARDOA.

**24€**

# Santo Tomas eguna ospatzeko **deialdia**



**Babarrun eta**  
sagardo **lehiaketa**



Abenduaren  
**igande** goizez

**18an**

**eta** gero... **12:30** Mikel Laboa plazatik  
Kantu Jira (etorri **baserritarrez jantzita**  
eta kantu liburuxkarekin!)

